# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**1758**

**21/2009 FORU DEKRETUA, martxoaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak emateko betebeharra arautzen da.**

Otsailaren 6ko 13/1996 Foru Dekretuaren bidez, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko urteko aitorpena arautzen da.

Aipatutako legezko testua honakoek aldatu zuten: alde batetik, maiatzaren 11ko 63/1999 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegian eta beste arau osagarri batzuetan hainbat aldaketa eransten dituenak, eta, bestetik, abenduaren 4ko 106/2001 Foru Dekretuak, lurralde historiko honetako zerga sisteman urriaren 5eko 1082/2001 Errege Dekretuan (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegia aldatu zuen besteak beste) eta abenduaren 22ko 2027 Errege Dekretuan (hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitorpena arautu zuen) jasotako aldaketak ezarri zituenak.

Ondoren, 2005eko otsailaren 28an, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokor berria onartzen da.

Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2995 Foru Arau Orokorreko 90. artikuluaren arabera, OtPertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek zein pribatuek, eta foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeek euren zerga-betebeharren inguruko denetariko datu, txosten, aurrerakin eta frogagiriak, zerga-ordainketan eragina izan dezaketenak, eman behar dizkiote zerga administrazioari, bai eta beste pertsona batzuekin izan dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozko guztiak ere.

Era berean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 91. artikuluak zerga administrazioari informazioa eta laguntza eman behar dioten agintarien zerrenda ematen du. Izan ere, zerga administrazioari jakinarazi behar dizkiote xedapen orokorren bidez edo banakako errekerimenduen bidez eskatzen dituen zerga-ordainketarako datu, txosten eta aurrekari guztiak, eta berari eta beraren agenteei laguntza, sorospena eta babesa eman behar dizkiete euren eginkizunak bete ditzaten.

Foru dekretuaren xedea da Arabako foru arautegira eranstea hirugarren pertsonekiko eragiketen gaineko informazioa emateko betebeharrari buruz egun onartuta dagoen arautegian sartutako aldaketak.

Era berean, eta gai horren inguruko arauen sakabanaketa saihestearren, 13/1996 Foru Dekretua indargabetzea hautatu da, bai eta hirugarren pertsonekiko eragiketei buruzko informazioa emateko betebeharra arautuko duen xedapen berri batez ordeztea ere.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***1. artikulua.- Hirugarren pertsonekiko eragiketei buruzko informazioa emateko betebeharra dutenak.***

1. Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 90. artikuluak xedatutakoaren arabera, hirugarren pertsonekiko eragiketei buruzko urteko aitorpena aurkeztu behar dute hauek: pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek zein pribatuek,

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**1758**

**DECRETO FORAL 21/2009, del Consejo de Diputados de 3 de marzo, que regula la obligación de suministrar información sobre las operaciones con terceras personas.**

Mediante Decreto Foral 13/1996, de 6 de febrero, se regula la declaración anual de operaciones con terceras personas.

El mencionado texto legal fue modificado por el Decreto Foral 63/1999, de 11 de mayo, que introduce diversas modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido y otras normas complementarias y por el Decreto Foral 106/2001, de 4 de diciembre, que incorpora al sistema tributario de este Territorio Histórico las modificaciones contenidas en el Real Decreto 1082/2001, de 5 de octubre, que modificó entre otras disposiciones el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, y en el Real Decreto 2027/1995, de 22 de diciembre, que reguló la declaración anual de operaciones con terceras personas.

Posteriormente, con fecha 28 de febrero de 2005, se aprueba la nueva Norma Foral General Tributaria de Álava 6/2005.

El artículo 90 de la Norma Foral General Tributaria 6/2005, de 28 de febrero, establece el deber de las personas físicas jurídicas, públicas o privadas, así como de las entidades mencionadas en el apartado 3 del artículo 35 de la citada Norma Foral de proporcionar a la Administración tributaria toda clase de datos, informes, antecedentes y justificantes con trascendencia tributaria relacionados con el cumplimiento de sus propias obligaciones tributarias o deducidos de sus relaciones económicas, profesionales o financieras con otras personas.

Asimismo, el artículo 91 de la citada Norma Foral General Tributaria relaciona las autoridades sometidas al deber de informar y colaborar con la Administración tributaria que también están obligadas a suministrar a la Administración tributaria cuantos datos, informes y antecedentes con trascendencia tributaria recabe ésta mediante disposiciones de carácter general o a través de requerimientos concretos, y a prestarle, a ella y a sus agentes, apoyo, concurso, auxilio y protección para el ejercicio de sus funciones.

El objeto de este Decreto Foral es incorporar a la normativa foral alavesa las modificaciones introducidas en la normativa que, hasta la fecha, se ha aprobado sobre la obligación de suministrar información sobre las operaciones con terceras personas.

Igualmente y con el fin de evitar la dispersión en la regulación de la materia, se ha optado por derogar el Decreto Foral 13/1996 y sustituirlo por una nueva disposición que regule la obligación de informar sobre las operaciones con terceras personas.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

***Artículo 1.- Obligados a suministrar información sobre operaciones con terceras personas.***

1. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 90 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, así como las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de dicha Norma, que desarrollan

eta foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako erakundeek, baldin eta enpresa edo lanbide jarduerak egiten badituzte.

Horretarako, enpresa edo lanbide jardueratzat hartuko dira hala definitu direnak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 5. artikuluaren BI idatz zatian. Era berean, halakotzat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuaren 5. artikuluaren Bat idatz zatian enpresaburu edo profesionalen kalifikazioa dutenak, e) letran xedatutakoak izan ezik.

2. Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauare 91. artikuluak 1 eta 2 paragrafoetan aipatzen dituen pertsonek eta erakundeek hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitorpenean honakoak ere sartuko dituzte: enpresa edo lanbide jardueratik kanpo ondasun edo zerbitzuen erosketak, horrelako jarduerak egiten ez badituzte ere.

Administrazio publikoetan txertaturik dauden erakundeek hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpenean honakoak ere aurkeztuko dituzte: euren aurrekontu orokorren kontura ematen diren dirulaguntzak edo laguntzak zein administrazio publiko horietan sartuta ez dauden erakunde edo organismoen kontura kudeatutakoak.

Estatuko administrazioak eta bere erakunde autonomoek, autonomia erkidegoek eta horien menpe dauden organismoek eta gainerako lurralde administrazio publikoetan sartutako erakundeek hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpen bat aurkeztuko dute enpresa edo lanbide izaerako jardueraren sektore bakoitzeko, baldin eta identifikazio fiskaleko zenbaki desberdina esleiturik badu sektore bakoitzeko edo, bestela, aitorpen bakarra aurkeztuko dute sektore guztietarako, identifikazio fiskaleko zenbaki bakarra baldin badute.

Administrazio publikoetan sartuta dauden erakundeek hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpen bat aurkeztu behar dutenean enpresa edo lanbide izaerako jardueraren sektore bakoitzeko, sektore bakoitzerako identifikazio fiskaleko zenbaki desberdin bat esleiturik dutelako, idatz zati honetan eskatutako datuak erantsiko dizkiote aitorpen horietakoren bati.

Era berean, aurreko idatz zatian adierazten diren erakundeek, Estatuko administrazioak eta horren organismo autonomoak salbu, nahiz eta enpresa edo lanbide jarduerarik ez egin, hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpen bat aurkeztu ahal izango dute beren departamentu, sail edo organo berezi bakoitzeko, identifikazio fiskaleko zenbaki desberdinak esleiturik baldin badituzte.

3. Era berean, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 90. artikuluaren 1. paragrafoko b) letran ezarritakoari jarraituz, sozietateak, elkarteak, lanbide elkargoak edo beste erakunde batzuk, baldin eta beren eginkizunen artean bazkide, elkartekide edo elkargokideen kontura lanbideko ordain sariak edo egileen jabetza intelektualak edo besteak sortutako eskubideak kobratzea badago, behartuta daude etekin horiek hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpenean sartzera.

***2. artikulua.- Hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpena aurkezteko betebeharretik salbuetsita dauden pertsonak edo erakundeak.***

1. Hona zeintzuk ez dauden behartuta urteko aitorpena aurkeztera:

a) Espainian enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituztenak, Espainiako lurraldean ez dutela ez jarduera ekonomikoaren egoitza, ez establezimendu iraunkorrik edo zerga egoitza edo, atzerrian eratuta egonik errenten egozketaren araubideko erakundeak izanez gero, Espainian jarduerarik egiten ez dituztenak.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren errenta egozketaren araubidean dauden pertsona fisikoak eta erakundeak, zerga horren karga zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo modulukako modalitatean eta, aldi berean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren karga araubide erraztuan

actividades empresariales o profesionales, deberán presentar una declaración anual relativa a sus operaciones con terceras personas.

A estos efectos se considerarán actividades empresariales o profesionales todas las definidas como tales en el apartado Dos del artículo 5 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido. Asimismo, tendrán esta consideración las actividades realizadas por quienes sean calificados de empresarios o profesionales en el apartado Uno del artículo 5 del citado Decreto Foral Normativo del Impuesto sobre el Valor Añadido, con excepción de lo dispuesto en su letra e).

2. Las personas y entidades a que se refieren los apartados 1 y 2 del artículo 91 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, incluirán también en la declaración anual de operaciones con terceras personas las adquisiciones en general de bienes o servicios que efectúen al margen de las actividades empresariales o profesionales, incluso aunque no realicen actividades de esta naturaleza.

Las entidades integradas en las distintas Administraciones públicas deberán incluir, además, en la declaración anual de operaciones con terceras personas, las subvenciones, auxilios o ayudas que concedan con cargo a sus presupuestos generales o que gestionen por cuenta de entidades u organismos no integrados en dichas Administraciones públicas.

La Administración del Estado y sus organismos autónomos, las comunidades autónomas y los organismos que dependen de éstas y las entidades integradas en las demás Administraciones públicas territoriales presentarán una declaración anual de operaciones con terceras personas respecto de cada uno de los sectores de su actividad con carácter empresarial o profesional que tenga asignado un número de identificación fiscal diferente o respecto de la totalidad de ellos.

Cuando las entidades integradas en las distintas Administraciones públicas presenten declaración anual de operaciones con terceras personas respecto de cada uno de los sectores de su actividad con carácter empresarial o profesional que tenga asignado un número de identificación fiscal diferente, incorporarán los datos exigidos en virtud de este apartado a una cualquiera de aquellas declaraciones.

Asimismo, las entidades a que se refiere el párrafo anterior, distintas de la Administración del Estado y sus organismos autónomos, aun cuando no realicen actividades empresariales o profesionales, podrán presentar separadamente una declaración anual de operaciones con terceras personas por cada uno de sus departamentos, consejerías, dependencias u órganos especiales que tengan asignado un número de identificación fiscal diferente.

3. Además, de acuerdo con lo establecido en la letra b) del apartado 1 del artículo 90 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, las sociedades, asociaciones, colegios profesionales u otras entidades que, entre sus funciones, realicen la de cobro, por cuenta de sus socios, asociados o colegiados, de honorarios profesionales o de derechos derivados de la propiedad intelectual de autor u otros, estarán obligados a incluir estos rendimientos en la declaración anual de operaciones con terceras personas.

***Artículo 2.- Personas o entidades excluidas de la obligación de presentar declaración anual de operaciones con terceras personas.***

1. No estarán obligados a presentar la declaración anual:

a) Quienes realicen en España actividades empresariales o profesionales sin tener en territorio español la sede de su actividad económica, un establecimiento permanente o su domicilio fiscal o, en el caso de entidades en régimen de atribución de rentas constituidas en el extranjero, sin tener presencia en territorio español.

b) Las personas físicas y entidades en atribución de rentas en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, por las actividades acogidas a la modalidad de signos, índices o módulos del método de estimación objetiva que tributen en dicho Impuesto y, simultáneamente, en el Impuesto sobre el Valor

edo nekazaritza, abeltzaintza edo arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun errekarguaren araubide berezian jasaten duten jarduerak direla eta (salbuespena: araubide horietan sartzen ez diren eragiketak), bai eta faktura egitea eskatzen duten beste jarduera batzuk direla eta.

c) Zergapekoak, beste pertsona eta erakundeekin urte naturalean egindako eragiketen zenbatekoa guztira 3.005,06 € baino gehiago izan ez dada; edo bestela, egin dituen eragiketen zenbatekoa denboraldi horretan 300,51 euro baino gehiagokoa ez denean, baldin eta eginkizunen artean bazkide, elkartekide edo elkargokideen kontura lanbideko ordain sariak edo jabetza intelektualak, industrialak, egilearen jabetzak edo besteak sortutako eskubideak kobratzea badute.

d) Foru Dekretu honen 3. artikuluaren arabera aitorpena egiteko beharra ez duten eragiketak besterik egin dituzten zergapekoak.

e) Zergapekoak, baldin eta Erregistro liburuetako eragiketei buruzko informazioa eman beharra ezarri eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onartu duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretua aldatu duen otsailaren 10eko 12/2009 Foru Dekretuari jarraituz erregistro liburuetako eragiketei buruzko informazioa eman behar badute. Salbuespen izango da honako eragiketak egiten dituztenean:

- Administrazio publikoetakoetan sartuta dauden erakundeek ordaindutako dirulaguntzak edo laguntzak, Foru dekretu honetako 1. artikuluaren 2 paragrafoaren bigarren lerroaldean aipatutakoak.
- Foru dekretu honetako 4. artikuluaren 1. paragrafoko d), e), f), g), h) eta i) idatz zatiek aipatzen dituzten eragiketak.
- Ekoizpenaren, Zerbitzuen eta Inportazioaren gaineko gaineko Zergaren pean dauden eragiketak Ceuta eta Melillako hirietan.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoko 3) idatz zatian araututako egoeretan, zergapekoek eragiketen urteko aitorpena bete beharko dute, eta aipatutako eragiketak besterik ez dute jarriko.

***3. artikulua.- Hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpenaren edukia.***

1. Foru dekretu honen 1. artikuluaren 1. paragrafoak aipatzen dituen zergapekoek urteko aitorpenean jaso behar dute zein pertsonarekin edo erakunderekin egin dituen eragiketak, haien izaera edo ezaugarriak edozein direla ere, baldin eta eragiketa horiek pertsona edo erakunde bakoitzarentzat oro har 3.005,06 eurotik gorakoa bada kasuan kasuko urte naturalean. Horretarako, ondasun eta zerbitzu emateak eta eskuratzeak bakoitza bere aldetik zenbatuko dira.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketatzat hartuko dira ondasun emateak eta zerbitzu eskaintzeak zein horiek denak eskuratzeak. Bi kasu horietan, betiko eta ohiko eragiketak, noizean behingo eragiketak, higiezin eragiketak eta ematen diren baina itzultzekoak ez diren dirulaguntza eta laguntzak sartuko dira.

Hurrengo lerroaldean adierazten diren salbuespenekin, urteko aitorpenean Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako eta salbuetsi gabeko ondasun eta zerbitzuen emate edo eskaintzeak eta eskuratzeak sartuko dira, bai eta aipatutako zergari lotu gabeko edo salbuetsitakoak ere.

Aseguru erakundeek seguru eragiketak sartuko dituzte beren urteko aitorpenean. Horretarako, aseguru lanetan ordaindutako prima eta kontraprestazioen eta kalteordain edo sarien zenbatekoak hartuko dira kontuan, eta hurrengo paragrafoko a) idatz zatian xedatutakoa. ez da, inolaz ere, eragiketa horietan aplikatuko.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, aitorpena egiteko betebeharretik salbuetsita daude eragiketa hauek:

Añadido por los regímenes especiales simplificado o de la agricultura, ganadería y pesca, o del recargo de equivalencia, salvo por las operaciones que estén excluidas de la aplicación de los citados regímenes, así como aquellas otras por las que emitan factura.

c) Los obligados tributarios que no hayan realizado operaciones que en su conjunto, respecto de otra persona o entidad, hayan superado la cifra de 3.005,06 euros durante el año natural correspondiente o de 300,51 euros durante el mismo período, cuando, en este último supuesto, realicen la función de cobro por cuenta de terceros de honorarios profesionales o de derechos derivados de la propiedad intelectual, industrial o de autor u otros por cuenta de sus socios, asociados o colegiados.

d) Los obligados tributarios que hayan realizado exclusivamente operaciones no sometidas al deber de declaración, según lo dispuesto en el artículo 3 de este Decreto Foral.

e) Los obligados tributarios que deban informar sobre las operaciones incluidas en los libros registro de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Foral 12/2009, de 10 de febrero, (por el que se regula la obligación de informar sobre operaciones incluidas en los libros registro y modificación del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido), salvo cuando realicen las operaciones siguientes:

- Las subvenciones, los auxilios o las ayudas satisfechas por las entidades integradas en las distintas Administraciones Públicas a las que se refiere el párrafo segundo del apartado 2 del artículo 1 de este Decreto Foral.
- Las operaciones a las que se refieren las letras d), e), f), g), h) e i) del apartado 1 del artículo 4 de este Decreto Foral.
- Las operaciones sujetas al Impuesto sobre la Producción, los Servicios y la Importación en las Ciudades de Ceuta y Melilla.

2. En los supuestos regulados en la letra e) del apartado 1 de este artículo, los obligados tributarios deberán cumplimentar la declaración anual de operaciones consignando exclusivamente las operaciones citadas.

***Artículo 3.- Contenido de la declaración anual de operaciones con terceras personas.***

1. Los obligados tributarios a que se refiere el apartado 1 del artículo 1 de este Decreto Foral, deberán relacionar en la declaración anual todas aquellas personas o entidades, cualquiera que sea su naturaleza o carácter, con quienes hayan efectuado operaciones que en su conjunto para cada una de dichas personas o entidades hayan superado la cifra de 3.005,06 euros, durante el año natural correspondiente. A tales efectos, se computarán de forma separada las entregas y las adquisiciones de bienes y servicios.

A efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, tendrán la consideración de operaciones tanto las entregas de bienes y prestaciones de servicios como las adquisiciones de los mismos. En ambos casos, se incluirán las operaciones típicas y habituales, las ocasionales, las operaciones inmobiliarias y las subvenciones, auxilios o ayudas no reintegrables que puedan otorgar.

Con las excepciones que se señalan en el apartado siguiente, en la declaración anual se incluirán las entregas, prestaciones o adquisiciones de bienes y servicios sujetas y no exentas en el Impuesto sobre el Valor Añadido, así como las no sujetas o exentas de dicho Impuesto.

Las entidades aseguradoras incluirán en su declaración anual las operaciones de seguro. A estos efectos, se atenderá al importe de las primas o contraprestaciones percibidas y a las indemnizaciones o prestaciones satisfechas y no será de aplicación a estas operaciones, en ningún caso, lo dispuesto en la letra a) del apartado siguiente.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, quedan excluidas del deber de declaración las siguientes operaciones:

a) Ondasun emateak eta zerbitzugintzak, baldin eta zergadunak faktura jasotzailearen datuak ezarrita egin eta eman beharrik eduki ez badu, edo, Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian, eskuratzaileak emandako ordainagiria sinatu beharrik eduki ez badu.

b) Zergapekoaren enpresa eta lanbide jarduerez kanpo egindako eragiketak.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotu gabeko eta salbuetsitako ondasun eta zerbitzuen emate edo eskaintze eta eskuratze doakoak.

d) Pertsona fisikoek edo nortasun juridikorik gabeko erakundeek enpresa edo lanbide jardueratik kanpo egindako errentamenduak, Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsiak.

e) Efektu tinbredun edo estankatuen eta frankeo zeinuen eskuraketak, bildumarako gaitzat hartzen direnak izan ezik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak 136. artikuluaren Bat idatz zatiaren 3. paragrafoko a) letran jasotzen den definizioaren arabera.

f) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak 20. artikuluaren Hiru idatz zatian aipatutako Gizarte izaerako erakunde edo establezimenduek egindako eragiketak, erakunde edo establezimenduen jardueraren sektoreari dagozkionak, horien ondasun emate eta zerbitzu eskaintzeak aipatutako zergatik salbuetsita daudenean.

g) Salgaien inportazioak eta esportazioak, bai eta zergapekoak Espainiatik kanpo daukan establezimendu iraunkorretik edo establezimendu iraunkorrarentzat zuzenean egindako eragiketak ere. Salbuespena izango da zergapekoaren establezimendu horren egoitza Espainian egotea eta eragiketaren kide den pertsonak edo erakundeak Espainiatik kanpoko establezimendu batetik jardutea.

h) Espainiako penintsulatik edo Balear uharteetatik Kanariar uharteetara, Ceutara eta Melillara, eta alderantziz, bidalketak egitea dakarten ondasun emate eta eskuratzeak.

i) Oro har, zerga administrazioari foru dekretu honetan araututakoak ez diren aitorpen espezifikoen bidez (baina eduki berdina dutenak) aldiro informazioa emateko betebeharra duten eragiketak.

3. Foru dekretu honen 1. artikuluaren 2. paragrafoak aipatzen dituen zergapekoek, gainera, eragiketen urteko aitorpenean jaso behar dute zein pertsonari edo erakunderi enpresa edo lanbide jardueratatik kanpo eskuratu dizkion ondasunak edo zerbitzuak, haien izaera edo ezaugarriak edozein direla ere, baldin eta eragiketa horiek pertsona edo erakunde bakoitzarentzat oro har 3.005,06 eurotik gorakoa bada kasuan kasuko urte naturalean. Hona salbuespenak:

a) Salgaien inportazioak.

b) Espainiako penintsulatik edo Balear uharteetatik Kanariar uharteetara, Ceutara eta Melillara, eta alderantziz, bidalketak egitea dakarten ondasun eskuratzeak.

c) Artikulu honetako 2. paragrafoko e) eta i) letretan xedatutakoak.

Era berean, administrazio publikoetan txertaturik dauden erakundeek aipatutako aitorpenean adieraziko dute beren eskutik dirulaguntzak eta laguntzak jasotako pertsona edo erakunde guztiak, guztira, haietako bakoitzarentzat, 3.005,06 euroko zenbatekoa gainditu badute, aurreko paragrafoko i) letran aurreikusitako salbuespena egoera horretan aplikatzeari kalterik sortu gabe.

4. Foru dekretu honen 1. artikuluaren 3. paragrafoan aipatzen diren zergapekoek hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpenean adierazi beharko dute agindu horiek aipatzen dituen ordainketak, egotzitako pertsona bakoitzari guztira emandako diru kopurua 300,51 eurotik gorakoa denean.

a) Aquéllas que hayan supuesto entregas de bienes o prestaciones de servicios por las que los obligados tributarios no debieron expedir y entregar factura o documento sustitutivo, consignando los datos de identificación del destinatario o no debieron firmar el recibo emitido por el adquirente en el régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca del Impuesto sobre el Valor Añadido.

b) Aquellas operaciones realizadas al margen de la actividad empresarial o profesional del obligado tributario.

c) Las entregas, prestaciones o adquisiciones de bienes o servicios efectuadas a título gratuito no sujetas o exentas del Impuesto sobre el Valor Añadido.

d) Los arrendamientos de bienes exentos del Impuesto sobre el Valor Añadido realizados por personas físicas o entidades sin personalidad jurídica al margen de cualquier otra actividad empresarial o profesional.

e) Las adquisiciones de efectos timbrados o estancados y signos de franqueo postal, excepto los que tengan la consideración de objetos de colección, según la definición que se contiene en la letra a) del punto 3º del apartado Uno del artículo 136 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

f) Las operaciones realizadas por las entidades o establecimientos de carácter social a que se refiere el apartado Tres del artículo 20 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido, y que correspondan al sector de su actividad, cuyas entregas de bienes y prestaciones de servicios estén exentos de dicho Impuesto.

g) Las importaciones y exportaciones de mercancías, así como las operaciones realizadas directamente desde o para un establecimiento permanente del obligado tributario, situado fuera del territorio español, salvo que aquél tenga su sede en España y la persona o entidad con quien se realice la operación actúe desde un establecimiento situado en territorio español.

h) Las entregas y adquisiciones de bienes que supongan envíos entre el territorio peninsular español o las islas Baleares y las islas Canarias, Ceuta y Melilla.

i) En general, todas aquellas operaciones respecto de las que exista una obligación periódica de suministro de información a la Administración tributaria mediante declaraciones específicas diferentes a la regulada en este Decreto Foral y cuyo contenido sea coincidente.

3. Los obligados tributarios a que se refiere el apartado 2 del artículo 1 de este Decreto Foral deberán incluir, además, en la declaración anual de operaciones, a todas aquellas personas o entidades, cualquiera que sea su naturaleza o carácter, a quienes hayan efectuado adquisiciones de bienes o servicios al margen de cualquier actividad empresarial o profesional, que, en su conjunto, para cada una de aquéllas, hayan superado la cifra de 3.005,06 euros durante el año natural correspondiente, con las siguientes excepciones:

a) Las importaciones de mercancías.

b) Las adquisiciones de bienes que supongan envíos entre el territorio peninsular español o las islas Baleares y las islas Canarias, Ceuta y Melilla.

c) Las establecidas en la letra e) y en la letra i) del apartado 2 de este artículo.

Asimismo, las entidades integradas en las distintas Administraciones públicas deberán relacionar en dicha declaración a todas aquellas personas o entidades a quienes hayan satisfecho subvenciones, auxilios o ayudas que, en su conjunto, para cada una de aquéllas, hayan superado por su parte la cifra de 3.005,06 euros, sin perjuicio de la aplicación en este supuesto de la excepción prevista en la letra i) del apartado anterior.

4. Los obligados tributarios a que se refiere el apartado 3 del artículo 1 de este Decreto Foral, deberán incluir en la declaración anual de operaciones con terceras personas, los pagos a que se refiere dicho precepto, siempre y cuando el total de la cantidad satisfecha a cada persona imputada haya superado la cifra de 300,51 euros.

***4. artikulua.- Hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpena betetzea.***

1. Hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpenean, datu hauexek jasoko dira:

a) Izen-abizenak edo sozietatearen izena osorik; baita identifikazio fiskaleko zenbakia eta aitorlearen zerga helbidea ere.

b) Aitorpeneko pertsona edo erakunde bakoitzaren izen-abizenak edo sozietatearen izena osorik eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Aitorpenaren kasuan kasuko urte naturalean pertsona edo erakunde bakoitzarekin izandako eragiketen guztirakoa, eurotan.

d) Beste eragiketa batzuetatik bereiz adierazi beharko dira batez ere negoziotarako lokalen errentamendutarako eragiketak, nahiz eta alde beren artean egin, eta modu bateratuan egingo balira bezala jo, foru dekretu honen 3.1. paragrafoan xedatutakoren ondorioetarako. Kasu hauetan, errentatzaileak errentadunen izen-abizenak edo sozietatearen izena osorik eta identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi beharko du; baita errentan emandako higiezinak kokatzeko beharrezkoak diren katastro erreferentziak eta datuak ere.

e) Aseguru erakundeek aseguru eragiketak beste eragiketa batzuetatik bereiz adierazi beharko dituzte. Horretarako, aseguru lanetan ordaindutako prima eta kontraprestazioen eta kalteordain edo sarien zenbatekoak adieraziko dira. Identifikazio hori bereiz egin behar izan arren, pertsona eta erakunde bakoitzarekin izandako eragiketen guztirako zenbatekoan sartu beharko da, foru dekretu honen 3.1. paragrafoak xedatutakoaren ondorioetarako.

f) Bidaia agentziek bereiz adierazi beharko dituzte hainbat zerbitzu, hau da, besteren izenean eta kontura aritzean emandako zerbitzuak, baldin eta fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiaren (apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartua) hainbat xedapen aldatzen dituen martxoaren 23ko 24/2004 Foru Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak jasotako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, bereiz adierazi beharko dira garraio zerbitzuetan, bidaia agentziak hartzaileari ematen dizkion bidaiariak eta beren ekipajea garraiatzeko zerbitzuei dagozkien bitartekaritza zerbitzuak, hau da, besteren izenean eta kontura egindakoak, Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 3. idatz zatiarekin bat etorriz.

g) Bereiz adierazi beharko dira bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura lanbide ordainsariak edo jabetza intelektualaren edo industrialaren edo egilearen jabetzaren ondoriozko edo bestelako eskubideak kobratzea, baldin eta kobratzaileak beren eginkizunen artean kobrantza egiten duten sozietate, elkarte, profesionalen elkargo edo bestelako erakundeak badira.

h) Adierazi egin beharko dira aitorpenean aipaturiko pertsona edo entitateetako bakoitzarengandik dirutan jaso diren 6.000 euro baino gehiagoko zenbatekoak.

i) Alde beren artean egiten diren beste eragiketa batzuetatik, egiten baldin badira, bereiz adierazi beharko dira egindako nahiz egin beharreko higiezin eskualdaketen ordain moduan jasotzen diren diru kopuruak, haiek Balio Erantsiaren gaineko Zergari loturik dauden emateak baldin badira.

2. Pertsona edo erakunde bakoitzarekin izandako eragiketen guztirako zenbatekoa zehazterakoan, irizpide hauek izan beharko dira kontuan:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako eta hori ordaintzetik salbuetsita ez dauden eragiketen kasuan, kontraprestazioen zenbateko osoa aitortuko da, zerga hori dela eta jasanarazi edo jasandako kuotak eta errekarguak barne direla.

***Artículo 4.- Cumplimentación de la declaración anual de operaciones con terceras personas.***

1. En la declaración anual de operaciones con terceras personas se consignarán los siguientes datos:

a) Nombre y apellidos o razón social o denominación completa, así como el número de identificación fiscal y el domicilio fiscal del declarante.

b) Nombre y apellidos o razón social o denominación completa, así como el número de identificación fiscal de cada una de las personas o entidades incluidas en la declaración.

c) El importe total expresado en euros de las operaciones realizadas con cada persona o entidad durante el año natural al que la declaración se refiera.

d) En particular, se harán constar separadamente de otras operaciones que, en su caso, se realicen entre las mismas partes, los arrendamientos de locales de negocios, sin perjuicio de su consideración unitaria, a efectos de lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 3 de este Decreto Foral. En estos casos, el arrendador consignará el nombre y apellidos o razón social o denominación completa y el número de identificación fiscal de los arrendatarios, así como las referencias catastrales y los datos necesarios para la localización de los inmuebles arrendados.

